

AGINTARIAK ETA LANGILEAK

Oposizioak eta lehiaketak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1100

443/2026 EBAZPENA, otsailaren 27koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez aldaketa egiten baita honako ebazpen honetan: 120/2026 Ebazpena, urtarrilaren 28koa, zeinaren bidez onartu baitziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2023-2024-2025 urteetan deitutako hautaketa-prozesuak arautuko zituzten oinarri orokorrak.

Otsailaren 4an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urtarrilaren 28ko 120/2026 Ebazpena, zeinaren bidez onartu baitziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2023-2024-2025 urteetan deitutako hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak.

2023-2024-2025eko hautaketa-prozesuan eskainitako lanpostuak benetan betetzeko, urtarrilaren 28ko 120/2026 Ebazpena aldatu behar da, Ebazpen honen ebazpen-zatian adierazten den moduan.

Indarrean dagoen legeriak ematen dizkidan ahalmenak baliatuz,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Aldatzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urtarrilaren 28ko 120/2026 Ebazpena, zeinaren bidez onartu egin baitziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan estatutupeko lotura finkoa lortzeko 2023-2024-2025 urteetan deitutako hautaketa-prozesuak arautuko dituzten oinarri orokorrak:

Esleipenaren erresulta-faseari dagokion 18. oinarrian, honako hau dioen lekuan:

«Deialdiko lanpostu guztiak betetzen direla ziurtatzeko, sartzeko baldintzak betetzen dituen hautagairik badago, izangaien behin betiko zerrendan ezarritako lehentasun-ordenaren bidez onartutako pertsonen-zerrendan dauden izangaiei esleituko zaizkie lanpostu hutsak, behin bakarrik eta lortutako puntuazioak zehazten duen lehentasun-ordenak ezartzen duen hurrenkeran.»

Honako hau esan behar du:

«Deialdiko lanpostu guztiak betetzen direla ziurtatzeko, sartzeko baldintzak betetzen dituen hautagairik badago, izangaien behin betiko zerrendan ezarritako lehentasun-ordenaren bidez onartutako pertsonen-zerrendan dauden izangaiei esleituko zaizkie lanpostu hutsak, lortutako puntuazioak zehazten duen lehentasun-ordenak ezartzen duen hurrenkeran.»

Lehiaketa-faseari dagokion 15. oinarrian, 15.1 puntuan: Laneko esperientzia, honako hau dioen lekuan:

«Oro har, izangaiak parte hartzen duen kategoria eta lanpostu funtzional berean egindako zerbitzuak baloratuko dira, deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetako laneko esperientziaren baremoan ezarritakoaren arabera.

Soilik baloratuko dira dena delako kategorian eta lanpostu funtzionalean sartzeko eskatzen den titulazioa lortzen den egunetik aurrera egin diren zerbitzuak, eskabideak aurkezteko epearen azken egunaren aurreko 20 urteetan egindakoak.»

Honako hau esan behar du:

«Oro har, izangaiak parte hartzen duen kategorian eta lanpostu funtzional berean egindako zerbitzuak baloratuko dira, deialdi bakoitzaren oinarri espezifikoetako laneko esperientziaren baremoan ezarritakoaren arabera.

Soilik baloratuko dira dena delako kategorian eta lanpostu funtzionalean sartzeko eskatzen den titulazioa lortzen den egunetik aurrera egin diren zerbitzuak, eskabideak aurkezteko epearen azken egunaren aurreko 20 urteetan egindakoak.»

Bigarrena.— Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 51. artikuluan xedatutakoaren arabera, baliozkoak izango dira aipatutako urtarilaren 28ko 120/2026 Ebazpenaren xedapenak, baldin eta Ebazpen honek egindako aldaketak eragiten ez badie.

Hirugarrena.— Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean, Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legean eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren estatutuak ezartzeko azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuan ezarritakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jarri ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Laugarrena.— Agintzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren otsailaren 27ko 443/2026 Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko otsailaren 27a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
MIREN LOREA BILBAO ARTECHE.